



Mendaro eta Soto lehen beteranoak, Ikaztegietakako XVI. herri krosean

PARTAIDETZA ▶ 169 korrikalarik burutu zuten 10 kilometrotako ibilbidea; antolatzaileak, «gustura» ▶ 3



Euria izan zuten lagun herenegun lasterkariek 10 kilometrotan zehar. NEREA LIZARTZA



N. LIZARTZA

«Harrera ona» izan du Euskararen Egunak

ARESO ▶ Eguraldiak lagundu ez arren, jende ugari bildu zen herenegun; taloak, musika eta pilota izan ziren, besteak beste ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

‘18/98’ «antzerki epaiketak» urtebete beteko du gaur

Egibarrek eta Txapartegik balantzea egin dute; Olarra ere auzipetua ▶ 4

LEITZA ▶


Finalerako txartela Olaizolaren aurka lortu beharko du Barriolak

Herenegun Titinen aurka irabazi zuen pilotariak «lan bikaina» egin ostean ▶ 5

IBARRA ▶

Kultur Trukeko jardunaldiak, bi astez Kultur Etxean

Gaur hasi eta abenduaren 1a bitarte «senidetasuna sustatzeko» ekintzak ▶ 6



Ezker-eskuin: El Mamun, Romeo eta Butron, inaugurazioan. m. s.

KIROLAK ▶

«Giro ona» Emakumea Pilotari Txapelketako 3. jardunaldian

Larunbatean jokatu zituzten paleta goma partidak, Beotibar frontoian; denera, 10 bikote ari dira parte hartzen



Larunbatean Beotibarren jokatu zituzten Emakumea Pilotari Txapelketako partidetak irudiak. ESTI ZEIZA

IÑIGO TERRADILLOS

Ezker Hormako I. Emakumea Pilotari Txapelketako partidak jokatu zituzten larunbat arratsaldean Tolosako Beotibar pilotalekuan. Hain zuzen ere, pilota emakumeengan sustatu asmoz Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak abian jarri duen Txapelketako 3. jardunaldia izan zen larunbatean Tolosan jokatu zena, aurretik Intxaurren eta Zestoan egin baitute. Tolosa proiektu honen barruan dago udalerrri laguntzaile bezala, eta horregatik lekutu zen bertan 3. jardunaldia.

Denera, 10 bikote ari dira parte hartzen, eta eskualdeko

pilotarien ordezkariak ere bada txapelketa honetan; Itxaso Urkizu berastegierra, Nagore Aroza lizartzarra eta Milder Mendizabal anoetarra ari dira lehiatzen.

5 partida izan ziren ikusgai Beotibarren. Lehenengoan Pierolak eta Goenagak osaturiko bikotea eta Fernandezek eta Unanek osaturiko aritu ziren nor baino nor. Azken emaitza azken bikotearen aldekoa izan zen, 20 eta 30, hain zuzen. Bigarren partidari, Etzegiak eta Arrizabalagak irabazi zuten Lujanbioren eta Gurrutxagaren aurka, 30 eta 23ko emaitzarekin; hirugarrenean, Urkizu eta Zabalak osaturiko bikoteak

galdu zuen Jauregiren eta Arozenaren aurka 9 eta 30eko emaitzarekin; laugarren partidari, Esnal eta Montese 30 eta 23 irabazi zuten Zabalaren eta Argainen aurka; eta bosgarren partidari, Arrondo eta Mendizabal izan ziren irabazleak, Manzisidorren eta Lukasen aurka, 30 eta 28ko emaitzarekin. 3. jardunaldi honekin, gus-tura azaldu dira antolatzaileak, «bai parte-hartzaileengan sortu den giroarekin, bai eta jendearen aldetik izan duen harre-ragatik ere».

Hurrengo jardunaldia Atauen izango da, datorren larunbatean. 16:00etan hasiko dira paleta goma partidak.

MUSIKA ▶

Eduardo Mocoroa musika eskolaren kalejira, gaur

Santa Zezilia bezpera izaki, gaur, Eduardo Mocoroa musika eskola kalejira irtingo da. Akordeoi taldea 19:00etan, eta ikasleen banda 20:00etan ariko dira.

OSASUNA ▶

Anorexia buruzko hitzaldia, etzi Usabalen

Laskorain ikastolak gurasoei zuzenduta, *Obesitatea, anorexia eta bulimia: Gure seme-alabak mehatxatzen dituen arriskua* solasaldia antolatuko Usabalen, etzi, 18:00etan.

GIZARTEA ▶

Tolosa 2015 ekimeneko bilera, etzi

Tolosa 2015 ekimenarekin. Udalak etorkizuneko Tolosa eraiki nahi du prozesu parte-hartzaile baten bidez. Tolosako eragileekin mahai inguruak egiten ari dira agenda 21etik, eta etzi, gazte-ten txanda izango da, 19:30ean, topagunean egingo den bileran.

EKONOMIA ▶

Merkataritzari buruzko jardunaldia gaur

Udaletxean aurkeztuko dute, 20:15ean, merkataritza bultzatzeko lau urteko plana

ERREDAKZIOA

Tolosako merkataritza guztiei lau urteko plan baten berri eman-gaur, 20:15ean udal-tertxeko pleno aretoan burutuko duten jardunaldian. Plan honen lehen helburua Tolosako merkataritza bultzatzea izango da.

Lan-mahai batek egindako plana da eta honako hauek izan dira mahai horretako partaide: Gipuzkoako Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamentua, Tolosaldea Garatzen, Eusko Jaurlaritzako Merkataritzako Asistentzia Teknikoko kabinetea, eta Igarondo eta Alde Zaharra-dendak merkataritza-erlarteak. Metaplan metodolo-gia jarraituz, maiatzean, ekai-

nean eta uztailean aritu da mahai hau lanean. Apirilean alde guztiek sinatutako lankidetzaren emaitza da eta aukera ematen du parte-hartzaile bakoitzak duen ikuspuntu edo iritzia ikuspegi eta osatua lortzeko.

Ondorengo galetan jardun du mahai honek, batik bat lanean: Merkataritzak dituen arazorik garrantzitsuenak identifikatu eta aztertzen; Tolosako merkataritzaren ikuspegi definitzen; planteatutako arazoak konpontzeko lan-ildoak mahairatzen eta lan-ildo bakoitzean garatu beharreko ekintzak zehazten eta plan bat ezartzen: arduradunak, taldeak, hasiera eta bukaera datak.

Gaur jakingo dituzte, beraz, planaren xehetasunak merkatariek.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: ennio@ennio.com
www.inmoennio.com

Anoeta. 3 logela, sukalde, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxi erakuntzan duplexa salgai. Garaje ibxia aukeran. Oso egoera ona.

Amezketak, Berastegi, Gabiria, Hernialde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliar, eta abiki, erakuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Berrobi. Estilo rustikoan (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela.

Berrobi. 3 logela, egongela,

sukalde, bainugela eta bi trasteleku. Ilogailua jartzeko proiektuarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.

Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukalde, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Ilogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m². Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Siervas de Jesus.

3 logela, sukalde, egongela, eta 2 bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m².

3 logela, 2 bainugela. Guztiz berrituta eta estreinatzeko. Garajearekin.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Ilogailu eta garajearekin.

Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, lau

logela. Ilogailua. Garajea. Egoera onean.

Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berria. Pisu altua. 100 m². Garaje ibxiarekin.

Leaburu bidean. bi solairuetan banaturiko 600 m²ko pabiloia alokairuan, 2.500 m²ko zelaiarekin.

Legorreta. Trasteleku salmantan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

Legorreta. 2 logela, sukalde, egongela eta bainugela dituen pisu polita salgai. Berritua. Dena kanpoaldera.

GUTUN@K ▶

Altzon kutzazaina zertarako?

Eguna lanean pasa ondoren, afaldu eta alabak oheratu eta gero, lehen atsedena beza sentituz, eseri eta etxera iritsitako paperak arakatzeari ekin nion.

Nire eskuetara iritsi zen lehenengo papera, Agenda 21a dela-eta Altzoko Udalak, gauzak hobeto zehazteko, sasi Udalak, bidalitakoa. Herritarren iritzia jakin nahi omen dute gai garrantzitsuen aurrean. Garai ederrean!!! Pentsatu

nuen. Mila trikimailu egin ondoren, iritzia galdetu. Burura etorri zitzaidan adibidez, iritzirik galdetu gabe, trikimailu ugari eginez, legeak eta araudiak urratuz onartu eta babes-tutela Altzo Azpiko zerrategia. Zergatik ez ote digute orduan herritarroir iritzia galdetu? Zergatik ez gintuzten herritarrek gonbidatu Juan Jose Ibarretxe lehendakaria herrira etorri zenean? Isilpean eta ezkutuan egiten al dira gauzak herri honetan? Hori baino gizalage gehiago behar-kozenukete.

Agenda 21ekoa utzi eta beste gutun bat hartu nuen. Orain artean sekula ikusi gabekoa,

koloredun logo eta guzti. Jakin-menez ireki nuen Gipuzkoako Ur Kontsorzioaren gutuna. Erretolika luzea eta amaieran arrazoi bortitza: 40, 37 euro.

Kontxol pentsatu nuen. Orain arte ordaintzen nuenaren bi-koitza, alajaina. Hurrengo egu-nean, herriko plazara hurbildu nintzenezan, bero-bero sumatu nuen jendea.

Ez dakit zergatik, baina uz-taileko bero sargorietan gerta-tzen denaren antzeko zerbait nabaritu nuen. Sargori egun horietan sarri hitz egiten dugu esanez, gure etxe aurrean 34º markatu din termometroak, gurean eguzkitan 40º iritsi zu-nan...Ni itzalean gorde nitinan!

Neguaeren atarian egonaga-tik, antzeko komentarioak ent-zun nituen lehengoan. Aldake-ta bakarra, graduak izan ordez, euroak aipatzen zirela. Gurera 40,37 euro. Jo! Gurera 45,10 euro. Gure aldameneko base-rritarrari...500 euroko faktura etorri omen zaion. Herritarrek aztoratuta eta haserre sentitu nituen eta itzala falta euro za-parradatik gordetzeko.

Gertakizunak buruan buel-taka nituela, derrepentean pentsatu nuen Mª Pilarrek eta bere monagiloek gauzak ondo pentsatzen dituztela.

Aurreko batean irakurri ge-nuen *Diario Vasco* egunkarian albiste garrantzitsu moduan,

Altzon Kutzazaina jarri behar zutela eta begira gauzak zer di-ren. Arrazoi dute, altzotarrek gertu beharko dugu hemendik aurrera Kutzazaina... besteak beste uraren fakturari aurre egiteko.

Lehendik ere hamaika «aha-legin» egin digutenez Altzoko herriaren alde...hara beste ahalegin bikain bat.

LURDES MURUA
GOROSTIDI ▶ ALTZOLANEAN
BIZI TALDEKOA

* Oharra: Iragan igandean Htzak argitaratutako gutune-an azken parrafoa beste gutun bati zegokion. Gaurkoa da zu-zena.

IKAZTEGIETA ▶ KIROLA

Herri krosean Mendaro eta Soto garaile, beteranoetan

Igandeko lasterketan 169 korrikalarik hartu zuten parte 10 kilometroak eginez



169 korrikalarik egin zuten Ikaztegieta XVI. herri krosa. N. LIZARTZA

NEREA URBIZU

Ikaztegieta krosa 169 korri-kalarik burutu zuten herene-gun. Aitor Alberdi eta Eduarne Viñas izan ziren seniorretan txapeldunak eta Juan Antonio Soto eta Mari Karmen Mendaro

beteranoetan. Antolatzaileek esan bezala, «eguraldi kaxka-rra izan genuen, baina giroa beti bezala oso ona izan zen, batez ere, hamaiketako ema-teko orduan». Sariak banatze-ko orduan ere «giro ona izan zen. Kiroldegian bildu ginen

beti bezala, eta bazkaltzeko or-dura arte han egon ginen». «Espero zuten bezala» joan zen, beraz, Ikaztegieta XVI. kros herrikoa, «urtero 175 korrikalari inguru baitatoz». Sariak ere jaso zituzten par-te-hartzaileek: korrika egitera

EMAITZAK ▶

SENIORRAK

Mutilak	
1. Aitor Alberdi (Zumarraga)	33:05
2. Juanjo Igarzabal (Zumarraga)	33:19
3. Manu Hurtado (Beasain)	33:19

Neskek

1. Eduarne Viñas (Beasain)	41:11
2. Maria Mendibe (Pasaia)	42:23
3. Josune Murua (Zarauz)	42:26

BETERANOAK

Mutilak.	
1. Juan Antonio Soto (Mendaro)	33:48
Neskek.	
2. Mari Karmen Garcia (Arrasate)	45:44

HERRIKOAK

Mutila.	
1. Joxe Mari Garmendia	36:56
Neska.	
1. Eneritz Maiz	51:14

atera ziren guztiek jertse bana jaso zuten, kirol aldizkariez gain; dena, Herrigintza kultur eta kirol elkarteari esker.

UGARTE ▶

Larunbateko IV. Gaztain jaterako txartelak salgai

Ugarteko elkarteko batzor-deak larunbaterako IV. Gaz-tain jatea antolatu du, 20:30ean. Elkartera afaltzera joan nahi duenak txartela 15 eurotan eros dezake, baina etzi arte, eta Goikoetxea ene-an eman beharko du izena. Menua honakoa izango da: saiheskia, gaztainak, gazta, kafea, kopa eta purua barne. Ugarteko elkarteko batzor-deak gonbita luzatu die he-rritar nahiz kanpotarrei.

ALEGIA ▶

Pilartxo Elozegi tolosarraren margolanak

Pilartxo Elozegi tolosarraren margolanak daude ikusgai Alegiko jubilatuen tabernan. Hilabete oso batez egongo dira bertan, abenduko lehe-nengo astera arte, hain zuzen ere. Tabernako ordutegiaren barne izango dira eta astear-tetik igandera bitarte daude ikusteko aukera.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztieta prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

hilberria ▶

Aitor Arrondo Anduaga

GURE LAGUNARI
Udazken hontan hegaztiakin batera joan haiz.
Gure artean ezin etsi.
Neguko ekaitzen zain hemen utzi gaituk,
zuhaizak bezala goibel eta bilutsik.
Udaberria iristean elkarrekin geratuko gaituk
etzaiguk egin hutsik.

Agur eta betirarte

oharra ▶ hiletan elizkizuna Mutiloko San Miguel elizan izango da, gaur, 19:00etan

ORMAIZTEGI, 2006ko azaroaren 21a

hilberria ▶

Andone Benito Jauregi

Soilik hitz bat amona...
...eskerrik asko...

Bilobak: Aiert eta Itxaropena, Iakes, David eta Vanessa, Iban eta Olga, Anartz eta Aintzane, Ioana, Nora eta Ion, Miriam, Julen.

TOLOSA, 2006ko azaroaren 21ean

'18/98 AUZIA' ▶

«Antzerki epaiketak», urtebete

'18/98 auziko' eskualdeko hiru inputatuek urtebete daramate astean hiru egunetan Madrilera joaten

IMANOL GARCIA

Urtebete betetzen da gaur 18/98 auzia hasi zela Espainiako Auzitegi Nazionalan. 56 euskal herritar zeuden hasieran auzipetuta, baina egun 53 lagun daude inputatuen eserlekuetan. Jokin Gorostidi tolosarra iragan apirillean zendu zen eta beste bi auzipetu aurrerago epaituko dituzte, gaixotasun larriak direla medio. Eskualdeko hiru lagun ari dira astero joaten Madrilgo Casa de Campon egokitutako epaitegi-gelara: Nekane Txapartegi asteasuarra, Mikel Egibar zizurkildarra eta Jose Mari Olarra billabonatarra. Madrilen zirela, Txapartegirekin eta Egibarrek auziari buruz hitz egin ahal izan du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK.

Epaiketaren motibazio politikoa nabarmena dela diote biek. «Hasieratik garbi izan dugu epaiketa politikoa dela, Euskal Herriaren aurkakoa eta nolabait erabakia epaitegietatik kanpo hartuta dagoela», azaldu du Txapartegik. «Inpotentziarekin bizi dugu auzia, guk esaten duguna ez duelako askotarako balioko».

Egibarrek dionez, Euskal Herriaren independentziaren alde dagoen dinamika «oztopatu eta bertan behera gelditzea»



18/98+ Kaiera ekimenean herritarrek auziaren inguruko iritzia eman ahal izan zuten. I. GARCIA

da auziaren helburua eta horretarako Espainiaren «estruturura errepesibo guztia mar-txan jartzen dute: atxilotzen

zaituzte gau batean, gero Madrilera eraman, han torturatu, fidantzapean atera eta gero horrelako epaiketa bat egin».

Auzian zehar gertatu diren «hutsune judizialak» ere izan dituzte hizpide: «Hasieratik ikusi dugu daudela, baina horren guztiaren gainetik beraiek epaiketa aurrera atera nahi dute. 'Guztia ETA da' teoria hori demostratzen saiatu dira eta gu kontrakoa demostratzen saiatzen ari gara», dio Txapartegik. Auzipetuen estrategia «muntaiia juridiko-politiko-poliziala» agerian ustea izan da. «Momentu askotan lortu dugu, eta uste dut Euskal Herriak bere egin dit Madriletik datorren errepresio ekonomi-



NEKANE TXAPARTEGI
AUZIPETUA

«Gure artean dugun elkartasunak eta laguntasunak epaiketari aurre egiteko indarra ematen digu»

Epaiketa bere horretan zigorra dela azaldu dute bi auzipetuek. «Gure abokatuek planteatu zuten bezala, bazeuden beste aukera batzuk epaiketa arinagoa egiteko. Esaterako, bost-sei zati daude auzian eta, beraz, epaiketa zatika egitea posible zen eta horrela ez genuen denok hemen batera egon beharrik».

Plano pertsonala

Hain zuzen, epaiketak beraien bizitzetan suposatzen ari dena ere nabarmendu dute. «Bizitza baldintzatuta dugu maila guztietan», dio Txapartegik. «Ez jakitea zenbat iraungo duen asko baldintzatu nau maila askotan. Esaterako, lana galdu dut. Zigorra aurretik ordaintzen ari gara, sentsazio hori dut. Bizitza baldintzatu, hipotekatuta dugula sentitzen dut, eta bai arlo ekonomikoan eta baita arlo pertsonalean ere eragina izaten ari dela».

Egibarrek nekea aipatzen du: «Urtebeteko bidaiak, lan alorreko arazoak, gastu ekonomikoak...». Ez du bere lana galdu zizurkildarrak. «Nire lantokiak bere egin ditu Madriletik datorren errepresio ekonomi-



MIKEL EGIBAR
AUZIPETUA

«Epaiketa isilarazten ari dira egungo egoera politikorekin zeharo bateraezina izan behar litzatekeelako»

ko hori, eta hori beste elkartasun mota bat da».

Beste elkartasun motak ere aipatzen dituzte. «Manifestazioetan gure aldeko atxikimendua erakutsi dutenak; era pertsonal batean, bai familiar bai lagunak emandakoa; eta gero ere zentzu politiko batean, eskubide zibil eta politikoen alde etengabeko defentsa erakutsi dutenak». Auzipetuen artean sortutako elkartasuna nabarmen izan dute biek. «Gure artean dugun elkartasunak eta laguntasunak epaiketari aurre egiteko indarra ematen digu, batez ere, momentu txarrak izan direnean: Jokin Gorostidi hil zenean, torturen salaketa egiterakoan edo torturazailletako bat identifikatu genuenean», azaltzen du Txapartegik. «Elkartasun hori oso sendoa da eta talde bezala oso modu indartsu eta dinamikoan eramaten ari gara epaiketa», gaineratzen du Egibarrek.

Egun epaiketaren hirugarren fasean daude, hau da, adituen iritziena. Fiskaltzaren peritoak ari dira deklaritzen eta gero defentsaren peritoen parte-hartzea etorriko da, ondoren frogaren perizialak eta, bukatzeko, Fiskaltzaren eta defentsaren alegatuak eta eskaerak. «Badakigu luze joango dela eta apirila edo maiatzera arte iraungo duela uste dugu. Hala ere ez dugu segurtzaririk».

Eguneko egoera politikoa auziak duen lekua ere aipatu dute. «Nahiko kontrajarria da epaiketa hau egungo egoerarekin», dio Egibarrek. «Isiltzen ari dira gure epaiketa. Dagoeneko inon ez da azaltzen astero hona gatzela eta, hain zuzen, isiltzen ari dira zeharo bateraezina izan beharko litzatekeelako gaur egungo egoera politikoa berri honekin».

iragarki laburrak ▶

IKASTETXE PUBLIKOAK

Langileak behar dira.

Garbitzaileak, sukaldariak, sukalde laguntzaileak eta atezainak behar dira. Telf.: 943 441006.

UDALETXEETARAKO

LANGILEAK

Hainbat lanpostu. Lorezainak, elektrikariak, igeltseroak, operarioak, gidariak eta peoiak behar dira. Telf.: 943 441006.

ZAINDARIAK

Museo eta artxiboetarako.

Zaindari lanpostuak daude. Telf.: 943 441006.

BEZERO ARRETA

Aireportuetan. Lanpostuak daude betetzeko bezeroen arreta sailean. Telf.: 943 441006..

LASTER DEIALDIK

Lanpostu deialdiatarako prestakuntza. Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak prestatzeko dokumentazioa eta klaseak. Telf.:943 441006..

ADMINISTRAZIO

PUBLIKORAKO DEIA

Plaza hutsak daude. Laguntzaile, administratiboak, liburutzaileak, harerregileak, telefonistak eta informatikariak. Telf.: 943 441006.

HEZKUNTZA MINISTERIOA

2/06 Lege Organikoko lanpostu deialdiak daude laster.

Haurtzaindegiak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Telf.:943 441006.

ELBARRITUAK

Lanpostuak. Lanpostu libre finkoak daude. Telf.: 943 441006.

OSAKIDETZA

4.000 plaza libre. Erizain laguntzaileak, geriatria laguntzaileak, zaindariak eta laborategiko laguntzaileak. Telf.: 943 441006..

GIDARIK

Lanpostu finkoak. Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telf.: 943 441006..



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ KIROLA

Titin mendean hartuta, finala pauso batera

Abel Barriolak Olaizola II.aren aurka irabazi beharko du datorren asteburuan

ERREDAKZIOA

Lan bikaina eginez irabazi zion Abel Barriola leitzarrak, here-negun, Titin III.ari Logroño-ko (Espainia) Adarraga pilotalekuan jokatutako norgehiagokan (16-22). Gisa honetara Martinez de Irujok bere lekua ziurtatu du finalean. Barriolak, aldiz, finalerako bigarren txartela datorren asteburuan jokatuko du, Olaizola II.aren aurka.

Hasiera gogorra izan zen Leitzakoarentzat, neurria hartzea

kostatu baitzitzaion. Bien bitartean, Titinek airez min handia egin zion 5-3koarekin aurretik jarri zelarik markagailuan. 8-5ekoa kontra zuenean, ordea, buelta eman zion eta sakea bereganatu ahala agintzen hasi zen. Sakez bi tanto jarraian egin ostean, partidak beste ibilbide bat hartu zuen eta 12-18ko markagailua izatera pasatu zen eta hortik aurrera erraza izan zen garaipena leitzarrentzat. Titin azken ahalegin egiteko prestatu bazen ere, sa-



Abel Barriola pilotari leitzarra, lanean. JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

kean gabezia handia izan zuen errioxarrak. Tantoa amaitzeko gaitasuna erakutsi zuen Barriolak eta zeregin handirik ez zuen izan Titinek.

Egindako lanarekin «gustu-

ra» azaldu zen neurketaren amaieran. «Titinen aurka jokatzea oso zaila da eta horregatik oso pozik nago». Datorren asteburuan Olaizolaren aurka izango duen lehiaren gainean

ere jardun zuen pilotariak. «Horixe bai izango dela benetako finalerdia». Eta halaxe izango da, izan ere irabazleak finala jokatuko du eta galtzen duena, aldiz, etxera joango da.

BERRIaren upeletik ardo aparta

REMELLURI 2001. urteko ERRESERBAko ardoa

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura: - Zure etxera.
- Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira.

3 BOTILAKO KUTXA 39 €
6 BOTILAKO KUTXA 78 €

ESKAKIA EPEA: azaroaren 27a arte
ESKAKIAK EGITEKO: 943 30 43 45
BIDALKETA GASTURIK GABE

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Gorriti liburudenda

Prentsa eta aldizkariak

Belate pasealekua, 1 • Tolosa • Tel.: 943 67 60 53

EZKONGAIK 2007-08 Herri Irratia

DONOSTIAKO HERRI IRRATIA - OM 1224 - FM 94,8

IZARRA BITXITEGIA
Juan XXIII Plaza. Lasarte-Oria. 943364945.
Oparia: urrezko ezkontza-eraztunak eta ezkontza-horniak.

SANCHEZ INPRIMATEGIA
Easo, 33. Donostia 943465308. Katalogoak eta gonbidapenak.
Oparia: ezkontzarako gonbidapenak.

MUNDO MUEBLE
Arre. Iruña. 948331161 Estilo guztietako altzariak.
Oparia: 300 eurotako baliodun erosketa txekoa.

NAMUX GANG DJ
Guk musika, giroa eta dibertsioa jartzen dugu, zuek ezkontza. 647045986.
Oparia: ezkontz eguneko emanaldia.

SILKEN AMARA PLAZA HOTELA
943464600
Oparia: Silken kateko hotel batetan 2 pertsonentzako asteburua (2 gau + gosariak).

KOTXE KLASIKOAK / ROLLS-BERRI ELK.
Aitaren Naia etxea, Aduna. 627467219.
Oparia: ezkontzarako kotxearen zerbitzua.

LASTURREKO ZEZENAK
San Nikolas plaza. Lastur. 943199033.
Oparia: "zezen festa" dohainik.

MURIXKA DANTZA TALDEA
Elizkizunerako amaierarik hoberena. 647263086.
Oparia: elizkizunaren irteerako emanaldia.

AITZBELTZ
Arteta, 1. Andoain 943591226. Sukaldeko altzari eta etxetresna elektrikoak.
Oparia: AEG F-50660 ontzi garbigailua.

AUZMENDI SASTREA
Bergara, 1. Donostia. 943424060. Senargaietzako jantziak.
Oparia: senargai jantziarentzako 300 eurotako erosketa txartela.

BAYON
Bergara, 23 - Donostia. 943425087
Emaztegai jantziak.
Oparia: emaztegai jantziarentzako 300 eurotako erosketa txartela.

Posta elektronikoa.
novios@herri-irratia.com

2007-08an ezkontzen bazara, azaroaren 22a aurretik hau bete eta ondorengo helbidera bidali: HERRI IRRATIA - DONOSTIA. Garibai, 19. 20004 Donostia

Senargaiaren izen-abizenak:	Tel.:
Helbidea:	Posta kodea:
Emaztegaiaren izen-abizenak:	Tel.:
Helbidea:	Posta kodea:
Ezkontzaren gutxi gora-beherako data:	Tel.:

IBARRA ▶ KULTURA

Kultur Trukeak hartuko du 15 egunez Kultur Etxea

Ibarrak Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriekin duen senidetasuna sustatzeko asmoz, ekitaldi ugari izango da gaurtik hasita abenduaren 1era arte

MADDI SOROA

Ibarrako herriak Saharako Tichla eta Ekuadorreko Ibarra herriekin duen senidetasuna sustatzeko asmoz, Kultur Truke Hamabostaldia antolatatu du Ibarrako Udalak, Ibarrik Misio Taldea eta Sahararen Lagunak elkarrekin batera.

Kultur Truke Hamabostaldiaren inaugurazioa atzo arratsaldean egin zuten Kultur Etxean. Bertan izan ziren Chelo Romeo Ibarrako alkatea, Mohamed El Mamun Frente Polisarioko lehendakaria eta Pablo Butron Ekuadorreko Kotsula. Bertan izan ziren ere, erakusketan parte hartu duten artistak. Inaugurazio ekitaldiari hasiera emateko agurra jaso zuten Sahara eta Ekuadorreko ordezkariak. Ondoren, Loatzo musika eskolak bi abesti eskaini zizkieten.

Kultur Trukearen bitartez, Ibarrako alkateak azaldu duenaren arabera, «Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriekin senidetasuna areagotu» nahi dugu.

Kultura lau haizetara

Kultur Truke Hamabostaldia gaur hasi eta abenduaren 1era bitarte izango da. Ekintzen artean denetik izango da, bideo emanaldiak, ipuin kontalaria edota mahai ingurua, besteak beste. Bestalde, Ibarrako Marce Tena, Tolosako Txitxi Orbeongo eta Ekuadorreko Hector Luna, Juan Eladio Villegas eta Gonzalo Perezen lanak ikusgai izango dira Kultur Etxean Kultur Truke Hamabostaldian.

iragarki laburrak ▶

LANA

Fruta-saltzaile. Fruta denda baterako neska bat behar da. 943 11 70 45.

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.
Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta tekuua. Egoera onean. 14.000 euro. 943 65 41 43

EGITARAUA ▶

Hona hemen egunez-eguneko egitaraua. Gogoratu, Kultur Truke Hamabostaldiko ekintza guztiak Benito Eizagirre kultur etxean izango direla.

GAUR

18:00etan eta 20:00etan.
Basamortuko irribarreak bideo emanaldi bikoitza.

BIHAR

19:30. *Ekuadorreko indigena mugimendua, tokiko borrokak eta mundu mailako erresistentziak* gaiak jorratzen dituen bideo emanaldia. (40min.)

ETZI

17:30etik 20:30era. Tolosan bizi diren emakume sahararien eskutik, haur eta gaztetxoei zuzendutako henna tatuaien tailerra eta tea nahiz pastak dastatzeko aukera.

AZAROAK 24 (OSTIRALA)

19:30. *Yacuyuyari, uretako oroitzapenak* (12min.) eta *Cotopaxiko Quichua herria* (22min.) bideo emanaldiak.

AZAROAK 25 (LARUNBATA)

11:30. *Cuba Martina (La ratita presumida)* txobongilo emanaldia *El Mejunje*

txobongilo talde kubatarraren eskutik.

AZAROAK 27 (ASTELEHENA)

17:30. Lur Korta ipuin kontalariaren eskutik *Munduko ipuinen* kontaketa saioa.

AZAROAK 30 (OSTEGUNA)

18:00etan eta 20:00etan.
Fatimeu, basamortuko deia bideo emanaldia (54min.).

ABENDUAK 1 (OSTIRALA)

19:00. *Ekuador bihotzean* gaia hartuta mahai-ingurua izango da, Joxemari Garmendia eta William Pascualekin.



Mohamed El Mamun, Pablo Butron eta Chelo Romeo dantzarien eskutik agurra jasotzen. MADDI SOROA

LEABURU ▶ KIROLA

Anjel Arrospidek izango du punturik gehien larunbateko final handian

ERREDAKZIOA

Anjel Arrospide aizkolari leaburuarrak saio bikaina egin du asteburu honetan jokatu den Nazioarteko Aizkolari Txapelketan. Egindako saioekin 44 puntu eskuratu ditu Arrospidek, modu horretan, sailkapen orokorreko lehen postua esku-

ratu duelarik. O'Toole australiarrekin batera. Hirugarren postua Nazabalek lortu du 36 punturekin.

Beraz, baldin eta ezusteko handirik ez badago behintzat, Arrospide eta O'Tooleren esku egongo dela final handia punturik gehien duten aizkolariak baitira.

Esan bezala, Anjel Arrospidek saio bikaina egin du asteburuan. Gogoratu, bere taldean, seitek bost proba irabazi dituela eta seigarrenean bigarren postua eskuratu duela. Modu horretan, irabazi dituen bost probetako finalak jokatzeo aukera izango du; zortzi, zazpi, sei edota bost puntu

OREXA ▶

Artikulazioen gaia mintzagai gaurko hitzaldian

Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko hitzaldia izango da gaur 16:00etan udaletxeko ganbaran. Landuko den gaia *Nola eraman artikulazioen higadura* izango da. Jardunaldi hauen helburu nagusia, gaurkotatuzko gaiak jorrratu eta eguneroko bizimodurako ohitura osasungarriak lantzea da.

LEABURU ▶

Arrospideren omenaldirako txartelak salgai

Hilaren 29an Leaburun ospatuko den Anjel Arrospide aizkolariaren omenaldian egingo den bazkarirako txartelak erosteko azken eguna da gaurkoa. Bazkarira joateko interesa duenak udaletxean erosi beharko du txartela 20 euroren truke. Bazkaria 14:30ean izango da Ostatuan eta ondoren Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsoari saioa izango da.

BERASTEGI ▶

Odola emateko aukera ostiralean 18:30ean eskolan

Berastegiko odol-emaileen elkarteak, odola emateko aukera eskaini du beste behin ere. Odola emateko interesa dutenek, ostiralean egin beharko dute Muñagorri eskolan arratsaldeko sei t'erdietatik aurrera. Elkarteko kideek jendea animatzeko deia egin dute.

eskuratzeko aukera izango duelarik. Bigarren egin zuen proban, berriz, lau, hiru, bi edota puntu bat eskuratzeko aukera izango du.

Gogoratu, Arrospide A taldean jokatu zuela eta ez dagoela talde horretan beste aizkolariarik final bat baino gehiago jokatuko duenik. Horregatik, larunbat honetan Azeptiko Landeta kiroldegian 17:00etan eta 23:00etan jokatuko duten finalean, bentajaz aterako da leaburutarra. Ikusi beharko da zer nolako saioa egiten duen.

ARESO ▶ EUSKARA

Euskararen Egunean, jende ugari

Eguraldiak lagundu ez arren, antolatzaileak «oso pozik» gelditu dira

NAIARA GARZIA

Jende ugari bildu zen igandearen Areson ospatutako Euskararen Egunean eta antolatzaileak «oso pozik» gelditu dira jendearen parte-hartzearekin. «Eguraldiak ez zigun lagundu, baina oso polita izandu zen», esan digu Joxepi Marzolek, antolatzaileetako batek.

Eguraldi txarra egin arren, aurreikusitako ekitaldi guztiak egin zituzten. Gurasoak 10:30ean bildu ziren gauzak prestatzeko, 11:30ean taloak baitzeuden plazan, haiek egingakoak. Sabela bete ondoren kalejiraren txanda zen, trikitalariak eta txistularia herriko kaleetan zehar ibili ziren bazterrak alaitzen. Txistularia Berastegitik ekarri zuten arren, trikitalariak denak herrikoak ziren.

Bazkalaureraren binakako pilota partida jokatu zuten herriko lau gaztetxoek eta irabazleak Anartz Solano eta Mikel Onsalo izan ziren. Kirol pixka bat egin eta gero, musikaren txanda izan zen berriro, eta gorpuzta astindua ondoren Pake-Toki elkartearen herri bazkaria egin zuten. 80 pertsona inguru bildu ziren bertan, eta egun hone-tako lemarekin jarraituz, de-

nen artean egin zuten bazkaria. Hori bai, gisadu txapelketan 5 pertsonak eman zuten izena, eta azkenean Ioseba Rezola suertatu zen irabazle. Epaimahaiari dagokionez, gurasoek bi lagun aukeratzeko dituzte eta hauek erabakitzen dute irabazlea zein den. Horretarako, prestatutako jakiaren zaporeaz gain, aurkezpena ere garrantzitsua dela esan digu Joxepi Marzolek.

Kafea hartzen ari zirela Jaione Olazabal eta Jon musika jotzen hasi ziren. «Oso polita izan zen, hunkigarria. Euskadiko kantu txapelketan kantatutako abestia hunkigarria izan zen».

16:30ean umeentzat antolatutako Kixka antzerkiak ere txiki-xoien artean harrera oso ona izan zuen, eta egunari amaiera emateko txokolata bizkotxoarekin hartu zuten.

«Denon artean festa polit bat egitea eta euskara bultzatzea» helburu duen egun hau Gurasoen elkarteak, Udalak eta Larrea eta Pake-toki elkarteek antolatu zuten, eta beste helburu bat ere bazuen: «gauzak aurrera eramaten saiatu behar gara, atetik heldu direnek herri txiki-txikiaren ere gauzak egin daitezkeela ikus dezaten».



Taloak. Aresoko Euskararen Egunean hainbat ekitaldi antolatu zituzten, baina egunari ongi etorria emateko talo-jatea aukeratu zuten. Herritarrak izan ziren taloak prestatu zituztenak eta eguraldi txarra egin zuzenez, gustura jan zituzten bertara hurbildu zirenek. N. LIZARTZA



Musika. Egunduz gero musikarik ez zen faltatu. Bazkaldu baino lehen kalejirarekin herriko bazterrak alaitu zituzten. Bazkaldu ondoren, Jaione Olazabal eta Jon kantatzen aritu ziren. N. LIZARTZA



Pilota. Musika eta janaz gain, pilota partida ere antolatu zuten. Bertan herriko lau gaztetxoek hartu zuten parte eta Anartz Solano eta Mikel Onsalo izan ziren irabazleak. N. LIZARTZA

LEITZA ▶ KIROLA

11-0 irabazi ondoren Aurrerak bere marka hautsi du Arkixkilen

Lehenengo zatian 8 gol sartu zizkioten Lezkairu-Rematxari, eta bigarren goan, 3

N. GARZIA

Herenegun etxean jokaturako partidaren errekorra gainditu zuten berriro leitzarrek. Duela gutxi errekorra 7-1en jarri bazuten, zenbaki horrek igandeko partida eta gero dezente gora egin du, 11-0 irabazi baitzuten Aurrerak azkena doan

C.D. Lezkairu-Rematxaren aurka.

Hau kontutan hartuta, igandean jokatu zuten partidara begira denboraldi honetan hainbeste minutu jokatu ez zituzten jokalariek sartzeko arope txatu zuten Aurrerak, eta emaitza ezin hobea izandu da.

Partida hasi eta lehenengo minutuko gola ez zen kasualitate izan, lehenengo zatian soilik 8 sartu baitzituzten. Zelaia-aren egoera kaxkara ez zen arazo bat izandu leitzarrentzat, eta lokatza egon arren, ederki asmatu zuten. Aukera asko sortu zituzten eta Aurrerako arduradunen ustez, «gozatzeko moduko partida izan zen».

Partida aurrera joan ahala, aurkariaren desmoralizazioa begira bistakoa izandu zen, izan ere, denboraldi honetan jokaturako partida guztietatik ez dute bat bera ere irabazi. Hala ere, haien jarrera «erabat zintzoa» izandu zen.

Herenegun Arkixkilen jokaturako partidarekin leitzarrek beste hiru puntu bereganatu

zituzten, eta dagoeneko 30 puntu dituzte. Berriozarko San Cristobal taldeak lehenengo jarraitzen du 31 punturekin, eta heldu den asteburuan talde honen aurka ariko dira, hain zuzen ere. Antolatzaileek azaldu dutenez, «horrelako talde baten aurkako partida batetarako entrenatzen ari garenean, zerbait ezberdina heldu dela nabari da, eta jendea gogo gehiagorekin etortzen da». Zein egunetan jokatu den oraindik zehaztu gabe dago, baina duen garrantzia argi utzi dute antolatzaileek. Berriozarko taldeari irabaziz gero, Aurrera sailkapenean lehenengo jarriko litzateke, eta aurrera begira ere, aukera gehiago izango litzuke.

SAILKAPENA ▶

LURRALDEKAKO 1. MAILA

Taldea	Puntuak
1. San Cristobal	31
2. Aurrera K.E.	30
3. Ardoi	22
3. Etxarri Aranaz	17
4. San Ignacio	14
5. UPN	13
6. Alsasua	12
7. Beti Kozkor	7

NC Nekane Caballero
Lda Col 3429

■ Aholkularitza juridikoa:
zibil, penal eta administratiboa
■ Higiezinaren zerbitzuak

Andia kalea, 1 • 1C • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 82 82

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. Mendi Asteko ikastaroetan izena emateko aukera. Bihar izango da azken eguna.

Anoeta. Hilaren 25ean Autodeterminazioaren Aldeko Eguna egingo dute. Bertan izango den bertso bazkarirako izena eman daiteke Itzuli tabernan. Egun horretako lanetan laguntzeko zerrenda ere Itzulin dago.

Berrobi. Podologoaren bisita Berrobiko bulegoan, 15:30ean. Hilabete honetako podologoaren zerbitzua azaroaren 27an izango da 15:30ean. Horretarako, ordea, ordua hartu behar da alde aurretik udaletxeko bulegoetan 943 68 32 94 azaroaren 21a baino lehen.

Orexa. udaletxeko ganbaran, 16:00etatik aurrera, Uli Mankomunitateak eta Kutxako ikasgelak antolatuta, *Nola eraman artikulazioen higadura* hitzaldia izango da.

Tolosa. Oargi mendi elkartearen Mendi Hamabostaldiaren baitan, mendiko materialen azoka, hilaren 26ra arte, 18:00etatik 21:00etara bitarte. Argazki lehiaketan parte hartu duten argazkiak ikusgai daude abenduaren 2ra arte, elkartean bertan.

Villabona. Aizkardi mendi taldearen Mendizale Astearen baitan, *Josuneren unerik onenak* Josune Bereziartu eskalatzailearen eskutik, 20:00etan, Gurea aretoan.


GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Goiko eskolatik betti.
21:00-22:00. Izarrak eta ilargia.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Adin guztietako jendea hurbiltzen da azokara. I. TERRADILLOS



Liburuak eta diskoak daude salgai bertan. I. TERRADILLOS

Durango baino lehen, Tolosa

TOLOSA ▶ Hilaren 26ra arte Liburu eta Disko Azoka ezarri dute San Frantzisko ibiltokian; bertan euskarazko liburu eta diskoak eskura daitezke, besteak beste



Arrakasta handi dute gaztetxoei zuzenduriko liburuek. I. TERRADILLOS

ERREDAKZIOA

Urteko azken hilabetea ate joka dugu. Harekin batera, hotza, eguberriak, zuhaitzak biluzik, datorren urterako erronka berriak... Eta euskaltzale askorentzat ezinbesteko hitzordua: Durangoko Azoka. Tolosak ere ez du gutxiago izan nahi eta, neurri txikiago batean bada ere, irakurzaletasunari bultzada eman nahi dio. Hori dela eta, Tolosako Liburu eta Diskoen Azoka atondu dute, urtero legez, San Frantzisko ibiltokian.

Ibiltarietxek derrigorrezko geldialdia egiten dute postuetan, batzuk kuriositatez, beste batzuk erosteko helburuz. Euskadiko liburu azoken batzordeak antolatzen duen azoka hilaren 26ra arte egongo da Tolosan, igandearekin. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, nahi duen oro bertaratuta daitekeelarik. Asteburuan, gainera, ordu erdi gehiagoz izango da zabalik. Irakurtzea ona dela badakigu... Eta, gainera, zergatik euskaraz?

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ane Iturrioz Irigoien.
 Atzo 9 urte.
 Zorionak familaren partetik.



URTE ASKOAN
Ekaitz Monreal Mitxelena
 (Tolosa). Gaur 2 urte.
 Zorionak ebekoen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa